

begirada

93

abuztua  
2024










Photo by Orlando Imperatore / Cropped from original

Lege-gordailua BI-1163-05

ikus  
pegi

Immigrazioaren  
Euskal Behatokia  
Observatorio Vasco  
de Inmigración



# EAE-N NAZIOARTEKO BABESA ESKATU DUTEN PERTSONAK, 2023

Begirada honetan Euskal Autonomia Erkidegoko nazioarteko babesari buruzko datuak aztertzen dira, eta horrela, 2021eko, 2022ko eta 2023ko otsailean, hurrenez hurren, argitaratutako 79., 83. eta 87. begiradetan garatutako informazioa eguneratzen da.

Barne Ministerioak argitaratutako azken datuen arabera, 2023an nazioarteko babes-eskaerek goranzko joerari eutsi diote Euskadin, eta guztira 6.153 eskaera jaso dira; beraz, pandemiaren eta Ukrainako gerraren ondorioz 2020tik izandako joera aldatu egin da.

# 1 Nazioarteko babes EAE-n


Barne Ministerioak 2023. urterako argitaratu dituen datuen arabera, nazioarteko babeserako 6.153 eskaera egin dira Euskal Autonomia Erkidegoan – aurrerantzean, EAE – urte horretan zehar. Datu horrek adierazten du egindako eskaeren kopuruak gora egin duela aurreko urtearen aldean, 2022an baino 2.067 gehiago.

Azken 17 urteetako nazioarteko babes-eskaeren kopuruaren bilakaerari behatuta – 1. grafikoa – ikus daiteke 2006 eta 2015 urteen artean eskaera kopurua txikiagoa izan zela, urtean 100 inguru. Gero, goranzko joera argia izan da 2016tik aurrera (urte horretan 500 eskaera egin ziren). Hurrengo urteetan, eskaeren kopurua azkar handitu zen, eta 4.827 eskaerara iritsi zen 2019an.

Pandemiaren ondorioek joera-aldaketa bat eragin zuten, eta, horren ondorioz, bi urtez (2020 eta 2021) eskaera kopurua nabarmen jaitsi zen; 2021ean 1.725era jaitsi zen. Hala ere, urte horretako kopurua 2019 arteko urteetakoa baino handiagoa da. 2022an beste joera-aldaketa bat gertatu da; izan ere, eskaerak nabarmen ugaitu dira (2.361 gehiago). 2023an, kopuruak hazten jarraitu du, 6.153 eskaerara iritsi arte, orain arteko maximo historikoa.

1. grafikoa.

Nazioarteko babes-eskaeren bilakaera EAE n, absolutuak, 2006-2023




Iturria: Geuk egina, Barne Ministerioaren datuak oinarri hartuta.

Bi sexuen arteko aldeak  
orekatu egin direla  
2021. urtearekin alderatuta

2. grafikoa.

Nazioarteko babes-eskatzaileen eta EAE n erroldatutako atzeritar jatorriko pertsonen sexuaren arabera banaketa, %, 2022



Iturria: Geuk egina, Barne Ministerioaren eta EINE datuetan oinarrituta.

Joeraren bilakaeran bertan ikus daitekeenez, urteetan zehar egon diren hainbat gertakari argi eta garbi eragiten diote eskaeren kopuruari. Dagoeneko aipatu dugunez, 2020ko pandemiak migrazio-fluxuak eta nazioarteko babes-eskaeren joera nahasi, eta nahitaezko lekualdatzeak ugaritu zituen mundu mailan.


Alabaina, 2023ko datuek ez dute informaziorik ematen eskaerak egin zituzten pertsonen jatorriari buruz. Datuak sakonago aztertzeko, eskuragarri dauden 2022ko datuetara jo behar dugu, une honetan osatuenak baitira, eta eskaera horiek egin dituzten pertsonen ezaugarrietan sakontzeko aukera ematen baitigute.

2022ko eskaerak sexuaren arabera aztertuz gero – 2. grafikoa –, ikus daiteke nazioarteko babes eskatzen duten gizonen ehunekoa handiagoa dela, % 52,9, eta emakumeena, berriz, % 47,1. Ikus dezakegunez, azken begiradako datuei erreparatzen badiogu, ondorioztatu daiteke bi sexuen arteko aldeak orekatu egin direla 2021. urtearekin alderatuta. Bestalde, atzeritar jatorriko biztanleek EAE n duten banaketari erreparatzen badiogu, badirudi datuak alderantzikatu egin direla; kasu honetan, emakumezkoen presentzia gizonetzkoena baino handixeagoa da.

## 3. grafikoa.

*Nazioarteko babes-eskaeren banaketa jatorri-eremuen arabera, %, 2022*

2022an, Latinoamerika zen nazioarteko babes eskatzen duten pertsonen artean jatorri-eremu nagusia, guztizkoaren % 92 – 3. grafikoa –. Magreb, alde handiarekin, eskaera kopuruaren arabera bigarren jatorri-eremua zen, guztizkoaren % 2,6arekin. Ondoren, Asia dago (% 1,9), eta, azkenik, Saharaz hegoaldeko Afrika eta EBtik kanpoko Europa (% 1,7 bi kasuetan). Aurreko urtearekin alderatuta, Latinoamerikatik egindako eskaera gehiago daude – 2021ean % 74,2 ziren, eta 2022an, % 92 –, eta, oro har, murriztu egin da gainerako eremu geografikoetatik egindakoen kopurua; zehazki, Saharaz hegoaldeko Afrikan, jaitsiera 8,3 puntukoa da –2021ean % 10 ziren, eta 2022an, % 1,7–.

*Iturria: Geuk egina, Barne Ministerioaren datuak oinarri hartuta.*

Nazioarteko babes- eskatzen duten pertsonen jatorriaren arabera datuen bilakaerari erreparatuz, hainbat joera-aldaketa hauteman daitezke urteetan zehar — 1. taula —. Horrela, 2006tik 2015era bitartean, nazioarteko babes-eskaera gehienak Saharaz hegoaldeko Afrikatik etorritako pertsonen egiten zituzten, baina 2016tik aurrera nabarmen gora egin dute Latinoamerikatik etorritako pertsonen egindako eskaerek. Venezuelako krisi politiko eta ekonomikoak, Nikaraguako krisiak 2018tik aurrera, Perukoak eta Kolonbiako babesgabetasun- eta indarkeria-giroak eragin zuten, hein handi batean, urte horietan latinoamerikar jatorriko pertsonen egindako eskaeren gorakada.

Era berean, Europar Batasunetik kanpo dauden Europako herrialdeetatik datozen pertsonen nazioarteko babes-eskaerak ere nabarmen igo dira 2015etik aurrera, aurreko urtearekin alderatuta 6 aldiz biderkatu baitira (7 eskaera 2014an eta 42 2015ean). EBtik kanpoko Europako herrialdeen seriearen kopururik handiena 2019an izan zen, 310 eskaera egin baitziren<sup>1</sup>. Horrez gain, ikus dezakegu Latinoamerikatik egindako eskaerek joera-aldaketa nabaria izan dutela: 2019tik 2022ra eskaera kopurua jaitsi egin zen, baina 2022tik aurrera gora egin zuen berriz, 3.760 eskaerara iritsi arte.

<sup>1</sup> Nazioarteko babes- eskatzen zuten ukrainar jatorriko pertsonen kopuruak gora egin du azken urteotan, baina EBtik kanpoko beste jatorri batzuek ere gorakada handia izan dute, hala nola Georgiak. Izan ere, 79. begiradan aurkeztutako datuen arabera, 2019an Georgia bosgarren jatorria izan zen EAEEn nazioarteko babes-eskaeren kopuruari dagokionez, Europar Batasunak eta Georgiak bisen arloan egindako akordioa dela-eta.

1. taula.

Nazioarteko babes-eskaeren bilakaera jatorri-eremuen arabera, absolutuak, 2006-2022

	EBtik kanpoko Europa	Magreb	Saharaz hegoaldeko Afrika	Latinoamerika	Asia	Gainerakoak	Guztira
2006	5	12	48	10	4	1	80
2007	2	11	69	6	4	-	92
2008	3	7	84	6	8	-	108
2009	8	4	88	7	10	-	117
2010	7	2	60	2	8	1	80
2011	4	7	80	8	15	2	116
2012	5	5	44	5	19	-	78
2013	-	1	46	4	11	-	62
2014	7	4	54	9	25	-	99
2015	42	3	61	28	29	-	163
2016	77	19	108	239	57	-	500
2017	124	20	113	650	60	3	970
2018	150	23	126	1.260	36	1	1.596
2019	310	71	255	4.115	72	4	4.827
2020	73	52	95	2.822	39	4	3.085
2021	54	93	173	1.280	123	2	1.725
2022	71	107	70	3.760	79	1	4.088

Iturria: Geuk egina, Barne Ministerioaren datuak oinarri hartuta.

Jatorrien arabera nazioarteko babes-eskaeren kopuruari erreparatzen badiogu – 2. taula –, Venezuela eta Kolonbia nabarmentzen dira besteen gainetik, 2022an nazioarteko babes-eskaera gehien izan zituzten herrialdeak baitira, % 39,2

eta % 33,8, hurrenez hurren. Horien atzetik, alde handiarekin, Latinoamerikako beste bi herrialde daude: Nikaragua (% 7,3) eta Peru (% 4,4). Georgia da Latinoamerikatik kanpo eskaera gehien dituen jatorria (% 1,2).

Venezuela eta Kolonbia nabarmentzen dira besteen gainetik

2. taula.

Nazioarteko babes-eskaerak jatorriaren eta lurralde historikoaren arabera, absolutuak eta % bertikalak, 2022

EAE				Araba				Bizkaia				Gipuzkoa			
		Kop.	%			Kop.	%			Kop.	%			Kop.	%
1	Venezuela	1.602	39,2	Kolonbia	402	38,5		Venezuela	977	48,3		Kolonbia	329	32,3	
2	Kolonbia	1.380	33,8	Venezuela	386	36,9		Kolonbia	649	32,1		Venezuela	239	23,4	
3	Nikaragua	299	7,3	Peru	97	9,3		Nikaragua	116	5,7		Nikaragua	171	16,8	
4	Peru	180	4,4	Honduras	23	2,2		Peru	67	3,3		Honduras	99	9,7	
5	Honduras	167	4,1	Mauritania	15	1,4		Honduras	45	2,2		Aljeria	27	2,6	
6	El Salvador	49	1,2	Afganistan	14	1,3		El Salvador	28	1,4		Maroko	27	2,6	
7	Georgia	49	1,2	Nikaragua	12	1,1		Georgia	18	0,9		Georgia	25	2,5	
8	Aljeria	46	1,1	Aljeria	10	1,0		Maroko	13	0,6		Peru	16	1,6	
9	Maroko	44	1,1	Nigeria	9	0,9		Afganistan	12	0,6		El Salvador	15	1,5	
10	Afganistan	35	0,9	Kuba	7	0,7		Aljeria	9	0,4		Afganistan	9	0,9	
	Gainerakoak	237	5,8	Gainerakoak	70	6,7		Gainerakoak	89	4,4		Gainerakoak	63	6,2	
	Guztira	4.088	100	Guztira	1.045	100,0		Guztira	2.023	100,0		Guztira	1.020	100,0	

Iturria: Geuk egina, Barne Ministerioaren datuak oinarri hartuta.


4. grafikoa.

Nazioarteko babes-eskaeren bilakaera EAEn, jatorri-eremu nagusien absolutuak, 2013–2022

4. grafikoa, 2013tik egindako eskaera kopuruaren bilakaera ikus daiteke, jatorriaren arabera, 2022an nagusienak diren bost kasuetarako. Ikus daitekeenez, Latinoamerikatik datoz guztiak.

Migrazio horien atzean dauden arrazoiei dagokienez, indarkeria-testuinguruei – Kolonbia eta Honduras – eta krisi politiko-ekonomikoei – Venezuela, Nikaragua eta Peru – lotuta egon direla esan dezakegu.

Illo horretan, Latinoamerikako bost herrialde horiek antzeko goranzko joera izan dute 2015 eta 2019 artean. Orduz geroztik, eskaeren kopuruak behera egin du: 3.868 eskaera egin ziren guztira 2019an, eta 1.185 eskaera 2021ean. Bi urteko epean % 69,4ko beherakada izan da. Hala ere, azken urteko hazkundeak 2019ko datuak gainditzen ditu: 1.602 eskaera egin dira Venezuelatik, eta 1.380, Kolonbiatik.



Iturria: Geuk egina, Barne Ministerioaren datuak oinarri hartuta.


Nazioarteko babes-eskaerak ukatzeari edo onartzeari dagokionez, Barne Ministerioak Espainia osorako argitaratutako datuetatik abiatuta, EAEn eskaera gehien egin dituzten herrialdeetako datuak erakusten ditugu<sup>2</sup> – 5. grafikoa –. Datu horiek erakusten dute eskaeren % 59,6 ukatu egiten direla, jatorri-eremu guztietan antzeko proportzioan. Venezuelaren kasuan, Asilo eta Babeserako Ministerio arteko Batzordeak – CIAR – 2019ko martxoan proposatu zuen arrazoi humanitarioengatik bizileku-baimena ematea Venezuelako nazionalitatea duten pertsona guztiei; bestela, haien nazioarteko babes-eskaerak ukatu egingo zituzketen. Horrela, 2022an jatorri venezuelarra dutenen % 66,3k bizileku-baimena lortu zuten arrazoi humanitarioengatik. Datu hori 2021ekoaren azpitik dago; izan ere, eskaeren % 82 onartu ziren 2021ean. Era berean, Venezuelatik egindako eskaeren % 33,6 ukatu dira, aurreko urteko % 17,9aren aldean.

Venezuelako kasuaz harago, gainerako jatorrietako ukapen-tasa Nikaraguako % 75,6aren eta Peruko % 95,9aren artekoa da.

<sup>2</sup> Autonomia-erkidego bakoitzean egindako eskaeren daturik ez dagoenez, ukatutako eta onartutako eskaerei buruzko datuak Espainian erregistratutako nazioarteko babeserako eskaera guztiei dagozkie, eta EAEn dauden jatorri-eremu nagusien arabera adierazten dira.

5. grafikoa.

Ukatutako eskaerak eta nazioarteko babes aitortzea Espainian, jatorriaren arabera, %, 2022



Iturria: Geuk egina, Barne Ministerioaren datuak oinarri hartuta.




## 2 EAE-ko biztanleek nazioarteko babesa eskatzen duten pertsonen buruz duten pertzepzioa

Ikuspegiren Barometroak urtero jasotzen ditu EAEko biztanleek jatorri atzerritarra duten pertsonen buruz dituzten pertzepzioak, eta, besteak beste, nazioarteko babesa eskatzen duten pertsonen buruzko galderak egiten zaizkie. 2023ko Barometroko datuek adierazten dute nazioarteko babesa eskatzen duten pertsonen harreraren onarpen maila oso ona dela —6. grafikoa—. Datu horien arabera, % 37,4k nazioarteko babesa eskatzen duten pertsonak mugarik gabe hartzea onartuko luke. Bestalde, biztanleen % 39,8k adierazi du hartuko lituzkeela, baldin eta jazartzen dituztela frogatzen bada. Hala ere, % 15,9k errefuxiatu kopuru mugatua hartuko luke, eta % 1,5k ez luke inor hartuko.

Beraz, esan dezakegu nazioarteko babesa eskatzen duten pertsonen harrera onartuta dagoela EAEko biztanleen artean; izan ere, % 93,1 harrera egitearen alde dago.

6. grafikoa.

*EAEko biztanleen iritzia nazioarteko babesa eskatzen duten pertsonen harrerari buruz, %, 2023*



*Iturria: Ikuspegi.*


Serieko bi datu altuenak bat datoz 2020ko pandemiarekin eta 2022ko Ukrainaren inbasioarekin

7. grafikoan, nazioarteko babesa eskatzen duten pertsonak hartzearen aldeko hiru aukeretako bat hautatzen duten pertsonen ehunekoaren bilakaera ikus dezakegu 2008tik 2023ra. Nabarmentzekoa da 2022an ehuneko hori serie osoko daturik altuenera iritsi zela (% 97,2), 2020ko zifra (% 94,9) gainditu baitzuen, eta 2021eko portzentajea (% 86) baino 10 puntu handiagoa baita.

Azpimarratu behar da 2015eko onarpen mailaren igoera bat datorrela urte hartako errefuxiatuen krisiarekin. Nabarmentzekoa da, halaber, serieko bi datu altuenak bat datozela 2020ko pandemiarekin eta 2022ko Ukrainaren inbasioarekin. 2009tik aurrera, EAEko biztanleen % 70ek baino gehiagok adierazi du errefuxiatuak eta nazioarteko babesa eskatzen dutenak hartzearen alde dagoela.

## 7. grafikoa.

*Nazioarteko babesa eskatzen duten pertsonak hartzearen aldeko EAEko biztanleriaren ehunekoaren bilakaera, 2008-2022*



*Iturria: Ikuspegi.*

# Ondorioak

- 2023an 6.153 nazioarteko babes-eskaera erregistratu ziren Euskadin. 2022an nabari zen joera-aldaketa mantendu da.
- 2022an gizonen ehunekoa emakumeena baino handiagoa izan zen, % 52,9 eta % 47,1, hurrenez hurren.
- Jatorri-eremu nagusia Latinoamerika da: 2022an nazioarteko babes eskatu zuten hamar pertsonatik bederatzi jatorri horretakoak dira. Ondoren, alde handiarekin, Magreb (% 2,6) eta Asia (% 1,9) daude. Herrialdeei dagokienez, Kolonbia, Venezuela, Nikaragua, Honduras eta Peru nabarmentzen dira.
- 2022an egindako eskaeren % 59,6 ukatu egin ziren. Aipatzekoa da Venezuelaren kasua: eskaeren % 66,3 onartu zituzten arrazoi humanitarioengatik.
- EAEko gizarteak jarrera irekia eta solidarioa du nazioarteko babes eskatzen duten pertsonetikiko —% 93,1 harrera egitearen alde dago—.

EAE 2023	6.153 asilo-eskaera
2022an egindako eskaera guztien % 92 latinoamerikar jatorrikoak	Jatorri nagusiak Venezuela eta Kolonbia
Ebazpenak	
Eskaeren % 59,6 ukatuak 2022an	Salbuespena: Venezuela eskatzaileen % 66,3k baimena lortu arrazoi humanitarioengatik
Euskal herritarren jarrera	
Biztanleen % 93,1 harrera egitearen alde dago	Azken hamarkadan biztanleen iritzia nabarmen hobetu da